

HUHEZIKO 508 IKASLE PRAKTIKAK ETA KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUAK EGITEN ARI DIRA

2007/05/22

2006-2007 ikasturtean HUHEZIKO 229 ikasle dabilza praktikak egiten. Beste 279, karrera amaierako proiektuak egiten ari dira. Praktika gehien **Irakasletzako ikasleek** egiten dituzte, 131, denak 2. mailakoak. Kasu horietan gure ikasleek praktikak egiten dituzte Euskal Herriko zein kanpoko ikastetxeetan.

Psikopedagogiako ikasketetan, berriz, 56 ikasle ari dira praktikak egiten Euskal Herriko zein kanpoko erakundeetan (udalak, elkarteak...). Horietatik 24 dira lehen mailakoak eta 32 bigarrenekoak.

Giza Zientzietakoei dagokienez, 42 ikasle ari dira praktikak egiten. Horietatik, 27 Komunikaziokoak dira, eta praktikak egiten ari dira Euskal Herriko hedabide, ekoizpen-etxe eta enpresarik esanguratsuenetan. Gainerakoak, 15, Humanitateak-Enpresa karrerakoak dira eta inguruko enpresetan dihardute praktikak egiten.

Praktikak atzerrian

Ikasle horietatik, bestalde, **15 Hego Ameriketara** joango dira, horietako batzuk Truke programarekin batera, elkartasun proiektuak aprobetxatuta. Beste **17 Europako** hainbat ikastetxe eta unibertsitatetara joango dira eta **2 AEBetara**.

Karrera amaierako proiektuak

Karrera amaierako proiektuei dagokienez, **279 ikasle** ari dira orain proiektua prestatzen. Horietatik 223 Irakasle Ikastetako karrerakoak dira, 45 Psikopedagogiakoak eta 11 Humanitateak-Enpresakoak.

HUHEZIKO ikasle gehienek karrera amaierako proiektua egiten dute unibertsitatearen inguruko **enpresa, ikastetxe edo hedabide batean**, ikasleak ikasi duenaren arabera. Horrela, ikasleek aukera dute karrerari jasotako jakintzak praktikan jarri eta praktika profesionalean beren gain hartu beharko dituzten errutinetara ohitzeko; hala nola,

